

ESFORTZUA

LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Ez dakit marrazten

Egilea: Eider Eibar

Argitaletxea: Elkar

Urtea: 2020

Hizkuntza: euskara

Sinopsia:



Zeure buruari behin baino gehiagotan esango zenion, beharbada, “...ez dakit marrazten!”. Horixe bera gertatzen zaio istorio honetako protagonistari. Hartu arkatza eskuan eta hasi jolasean... ikusiko duzu zer gertatzen den!

IRAKURKETA GIDA DIDAKTIKOA

Gaia: Esfortzuaren eta norbere buruarengan konfiantza izatearen balioa.

Helburuak

- Frustrazioa kudeatzea, pazientzia, pertseberantzia eta interesa landuz.
- Autoestimua eta segurtasun pertsonala indartzea.
- Ahalegina sustatzea, eguneroko lan-ohiturak garatuz.

Gomendatutako adina: 5-7 urte

Informazioa

- **Non egon daiteke gure seme-alaben autokonfiantza eta esfortzu ezaren jatorria?**

Nahiz eta gure seme-alabei onena ematen saiatuz, gure asmoa ona izan, gure ekintza batzuek, hala nola gehiegizko babesak eta gehiegizko konpentsazioak, eragin kaltegarria izan dezakete haien garapenean. Segurtasunik eza, ezinegona, autoestimua txikia, neurritz kanpoko beldurrak, mendekotasuna, interesik eza, etengabeko onespina bilatzea eta trebetasun batzuk gutxi garatzea izan daitezke, besteak beste, autonomia, ahaleginaren balioa, frustrazioarekiko tolerantzia eta arazoak konpontzeko gaitasuna garatzeko behar adina estimulu ematen ez dizkien ingurune seguruegi batean heztearen ondorioak.

- **Zer egin behar genuke gure seme-alabek esfortzuaren balioaz jabetu daitezen?**

Bere lorpenak ospatzeaz gain saiakerak ere ospatu, arreta amaierako emaitzan ez ezik, prozesuan jarritz; saiakerekin jarraitzeko animatu, esfortzuaren garrantzia aditzera eman; barne motibaziorik ez topatzean, kanpo motibazioak bilatzen irakatsi (sariak ekidin); helburu errealek jartzen irakatsi, esfortzua handia bada ere helburuak noizbait ez lortzea ere posible dela ulertaraziz; helburuak lortzen ez dituenetan beste lorpen batzuk izan dituela eta izango dituela gogorarazi; haien eredu izan eta feedback konstruktiboak ematen saiatu; arazoen ebazpenerako konpetentzia garatzen lagundu, erronka ezberdinei aurre egin behar duen jarduerak aurkeztuz; eta bere sentimenduak adieraztera animatu, zuen sostengua jasoko duela argi utzita.

Liburua irakurri baino lehen...

1.- Konfiantza eta komunikazioa

Gidan proposatzen dizkizuegun jarduerekin hasi aurretik, ezinbestekoa da zuen alabaren/semearen egoera oso ondo ezagutzea. Hau da, ume bakoitzak bere barne mundua duenez gero, adierazitako jarrera izatearen arrazoiak identifikatzea eta ulertzea da eman beharreko lehenengo urratsa. Horretarako, zuen alabarekin/semearekin hitz egitea gomendatzen dizuegu, ahalegintzen ez den jardueri eta haien motibazio eta emozioei buruz galdetuz.

Arrazoiak arrazoi, garrantzitsua da babestuta, maitatuta, animatuta eta gustura sentitzea, eta hori orain arte lortu duen guztiagatik harro zaudetela eta bere egoera ulertzen dugula erakutsiz lor dezakegu. Izan ere, gure hitzek eta ekintzek gure seme-alabez pentsatzen duguna islatzen dute, eta transmititzen dieguna eragin zuzena dauka haien nortasun eta portaeran.

2.- *Ez dakit marrazten* liburuari buruz hitz egin dezagun

Bizitzen ari zareten egoera lantzeko, liburu bat hartu duzuela esango diozue, non protagonistak antzeko egoera bat bizi duen. Hasteko, utzi iezaiozue zuen alabari/semeari album ilustratua nahi bezala behatzen eta manipulatzeko, eta har ezazue parte zeregin horretan, azaleko ilustrazioei buruz galdetuz.

Hona hemen galdera batzuk:

- Zer ikus dezakezu liburuaren azalean? (Bertan agertzen den guztiari buruz hitz egitera animatu ezazu, esaten duena berarekin komentatuz).
- Zure ustez, nola sentitzen da azalean agertzen den umea? Zergatik uste duzu sentitzen dela horrela?
- Liburuak *Ez dakit marrazten!* du izenburua. Zer uste duzu gertatuko dela ipuinean?

Liburua irakurtzen duzuen bitartean...

1.- Gomendio batzuk

Eider Eibarren liburu honetaz edozein adinetako gaztek zein helduk gozatu badezake ere, lortu nahi ditugun helburuak kontua izanda, 5 eta 7 urte bitarteko umeei bideratu dugu gida hau. Hala eta guztiz ere, zuen alabaren/semearen ezaugarriak eta gaitasunak kontuan hartu behar dituzue eta gidaren edukia gaitasun horietara egokitu: galderak harekin irakurriz zein elkarrizketa baten moduan eginez, hiztegia aldatuz, bere erritmoa jarraituz (jarduera bakoitza egiteko denbora murriztuz zein luzatuz), eta zuen galdera edota jarduera propioak gehituz, esate baterako.

Kontuan izan *Ez dakit marrazten!* album ilustratu bat dela eta bere irudiek hitzek baino askoz gehiago transmitituko digutela. Beraz, pertsonaia eta xehetasunak aditasunez aztertu, autoreak horiekin guztiekin helarazi nahi duena ulertzea xede bihurtuz. Gidan zehar galdera sorta eskaintzen dizuegu ezaugarri guztiez ohartzeko lagungarriak izan daitezkeenak. Zuren alaba/semea horiei monosilaboak baino gehiago erabiliz erantzutera animatu.

2.- Orriz orri



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Lehenengo eta bigarren orrialdea ondo aztertu. Zer gailenduko zenuke?
- Agertzen diren pertsonaia guztiek zereginen bat al daukate? Zein? Zein emozio transmititzen dizu bakoitzak?

- Orrialdea pasa ezazu. Bi orrialde hauetan mutikoa da nagusi. Zer gertatzen zaiola esango zenuke? Zer dela eta?
- Nola sentitzen dira agurea eta beste umea mutikoaren jarrera ikusita?
- Pentsa ezazu frustrazio eta etsipen bera eragiten dizun jarduera batean.

Jarduera:

Aurreko galderan pentsatu duen jarduera jomugan jarrita, orain arte lortu ez izanaren arrazoiak zeintzuk diren pentsatuko duzue. Zailtasunak, pertsonalak izanez gero (bere burua lortzeko gai ikusten ez badu), hurrengo ariketa egitea proposatzen dizuegu:

Orri zurietan bere buruaz pentsatzen duena apuntatuko du. Ostean, idatzitako esaldi zein adjektiboak positiboak ala negatiboak diren adieraziko duzue, positiboak indartuz (horiekin bat egiten duzuela adieraziz eta bere bizitzan zehar horrekin lotutako adibideak emanez) eta negatiboen jatorria zein den ikertuz.

Bukatzeko, izendatu duen jarduera lortzeko behar dituzuen adjektiboak eta ezaugarriak aukeratuko dituzue.



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zer ikusten duzu bi orrialde hauetan? Deskribatu.
- Zer adierazi nahi zuen egileak laino gris hori irudikatzean?
- Zer emozio eragiten dizu irudia ikusteak? Zergatik?
- Zure ustez, lainoa edonork ikus dezake ala soilik mutikoak? Zergatik?

- Pentsa ezazu bizi izan duzun antzeko egoera batean. Momentu horretan, zein modutan ikusten zenuen zure ingurua?

Jarduera:

Ikuspuntu ezberdinez begiratzen ikasteko, hurrengo ariketa proposatzen dizuegu. Benetako egoerak aurkeztuz, beren alde negatiboarekin ikusi itzazue eta, ondoren, baikortasunez ikustera pasa. Bakoitzean, modu batean zein bestean ikusita lortuko lukeenaz galdetuko diozue, eta zein nahiago duen erabaki beharko du. Jarduera honek, suertatzen zaizkion erronkak positibotasunez aurre egitera bultza dezake, helburu errealistak ezarriz eta horiek gauzatzeko plan bat sortuz.



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Eskolako egun hartan, irakasleak margo bat erakusten die ikasleei. Bere azalpenak entzunda, ikasle guztiek modu berean erantzuten dute? Aurpegi guztiak aztertuko ditugu eta pentsatzen ari direna asmatzen saiatuko gara.
- Noizbait ikusi al duzu horrelako egoerarik eskolan? Zer sentitu zenuen?



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zeintzuk metodo erabiltzen dituzte marrazten ikasteko? Modu berean erantzuten dute ikasle guztiek? Banan-banan aztertuko ditugu, ea bakoitzak zer egiten duen.
- Zergatik uste duzu erabiltzen dituela, liburuaren egileak, gai hauek? (lehenengo gizakiak, animaliak, piratak eta ipuinen mundua).
- Nola erantzuten du liburuaren pertsonaia nagusiak bere gelakideek mundu ezberdinak gustura ikertzen dituztela ikusita? Nola sentituko zinateke zu egoera horren aurrean? Zergatik? Horrela sentitzearen zenbait arrazoi pentsatuko ditugu.
- Hurrengo orrialdeetan mutikoak “Ez dakidala marrazten!” oihukatzen du. Nola jarraitzen du mundua ikusten?
- Horrelako egoerarik bizi al duzu noizbait? Zein? Nola sentitu zinen? Egoera edota zure emozioak aldatzea lortu al zenuen? (Lortzekotan) Nola?

Jarduera:

Liburuaren egileak egin duen moduan, bere burua mundu, izaki zein objekturen batekin konparatzean datza jarduera hau. Aukeratzen duen ekintza adibide izanda, azaldu iezaiozue zuen alabari/semeari marraztuko duen egoera bere sentimenduekin harreman zuzena duela. Horrela izanda, marrazki bat baino gehiago egiteko aukera emango diozue; eta, ostean, bakoitzean zer marraztu duenaren zergatia azaltzeko eskatu.



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Orain arte mutikoak esaldi bera errepikatu dio bere buruari. Zein? Zer lortu du hori errepikatuta?
- Begiratu bi orrialde hauetako pertsonaien aurpegiei. Nola sentitzen da mutikoa? Zergatik uste duzu harrituta dagoela? Eta nola esango zenuke sentitzen direla bere gelakideak? Zergatik daude horren animatuta?
- Nola sentitzen zara zu zure lagunen batek lortu nahi duen zerbait egitera animatzen denean? Eta zu, nola sentitzen zara lortu nahi duzun zerbait egitera animatzen zarenean?

Jarduera:

Zuen alabari/semeari liburuaren pertsonaiari gertatu zaion bezala gertatu al zaio noizbait? Pentsa ezazue berarekin batera zeinbait egoeratan.

Horiek komentatzean hurrengo taula batean idatzi:

- Zein jarrera izan nuen hasieran?
- Zer esaten ala pentsatzen nuen jarrera hori nuenean?
- Zein momentutan animatu nintzen ekintza hori burutzera? Zerk bultzatu ninduen ala zergatik aldatu nuen nire ikuspuntua?
- Nola egiten dut orain ekintza hori?
- Amore eman banu, orain lortzeko gai izango nintzateke?



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Hasieran, zer marrazten du mutikoak? Polita iruditzen al zaizu? Orduan, jadanik marrazten dakiela esango zenuke?
- Marra zuzenak marraztetik zurrunbiloak marraztera pasa denean ez du ezta begiratu izan nahi! Zergatik uste duzu egin duela hori? Baina ostean oso pozik jarri dela dirudi. Zergatik izango ote da?
- Hurrengo orrialdeetan ere margoarekin jolasean ibili da. Forma ezberdinak egitera ausartu al da? Marraztea gustuko duela uste al duzu?



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zein modutan heldu da mutikoa etxera? Zergatik?
- Hurrengo orrialdeak ere ikusiko ditugu. Zertan dabilta bi haurrak?
- Gogoratzen al duzu nola sentitzen zen mutikoa ipuinaren hasieran? Orain ere berdin sentitzen dela uste al duzu? Zer dela eta aldatu zaio kemena?



Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Ipuinaren bukaeran mutikoak sortutako marrazkiak hasieran margotu zituenekin konparatu. Zein gustuko duzu gehien?
- Zer egin behar izan du marrazketarekin hobetu ahal izateko?
- Nola uste duzu sentitzen dela mutikoa orain? Noizbait modu berean sentitu al zara?
- Nola uste duzu sentitzen direla agurea eta beste umea? Zergatik?
- Zein beste modutan lortu ahal zuen mutikoak ondo marrazten?
- Zure ustez, praktikatzen jarraitzen badu marrazketan hobetzen jarraituko al du? Zuri ere gauza bera gertatu zaizu noizbait, pentsa ezazu zertan zaren orain ona txikiagoa izanda kostata burutzen zenuena.

Jarduera:

Jarduera honetan etorkizun hurbilean lortzeko helburuak proposatzea eta horiek lortzeko egin beharrekoa aukeratzean datza.

Hasteko, gustuko duen koloreko kartulina handi batean aukeratzen dituzuen helburuak idatzi, ematen diozuen garrantziaren arabera ordenatuz. Ostean, horiek lortzeko zer egin beharko duzuen pentsatu eta kartulinan idatzi zein marraztu. Kartulina ondo ikusten duen etxeko lekuren batean itsatsi.

Horiek betetzen dituzuen heinean, zeinuren batekin markatuko dituzue. Kontuan izan, hasieran behar izango duzuen denbora-tartea eta betebeharrak zehatzak izan badira ere, horiek moldatzeko aukera izango duzuela.

Liburua irakurri ostean...

Hainbat jarduera eta jolas erabil ditzakezue pertseberantzia eta ahalegina sustatzeko, hona hemen batzuk. Horietan guztietan, hausnarketa momentu bat hartu itzazue, eskatzen diozuen, lortu duena eta sentitu duenaz kontziente izan dadin.

1.- Beste liburu batzuk

Gaia zuen alabarekin/semerekin lantzeko beste libururen bat irakurri nahi baduzue, gida honen azken atalean izenburu ezberdinak gomendatzen dizkizuegu. Liburuak irakurtzeaz gain, gogoratu antzeko ipuin interaktiboak kontatzen ditzakezuela. Horiek kontatzeko, utzi iezaiozue pertsonaiak eta istorioa non gertatuko den aukeratzen. Jarraian, urrats jakin batzuk egitera edo txanden zain egotera behartzen duten erronkei aurre egiteko hainbat egoera asma ditzakezue, zuen alabak/semek gainditu ditzan.

2.- Errutina

Eguneroko zeregin ezberdinak egokituko dizkiozue, hurrengoa kontuan izanda: eragozpen zein zailtasunen batekin topo egiteagatik, zein aspertzeagatik, lana amaitu gabe uztea ukatuko diozue; ez duzue haren nahieren aurrean amore emango, hitzartutakoa bete dezan tinko eutsiz; eta zereginak eta helburuak (zailtasunaren arabera) dosifikatuko dituzue.

Kontuan izan, bere adinaren arabera zereginen ardura eman beharko dizkiozuela, hasieran zuen laguntzaren beharra izan dezakeela jakinda. Horiek betetzean, egindako lanaz harro zaudetela adieraztea ere garrantzitsua da, baina logikoa eta osasungarria den neurri baten barnean.

3.- Jolasean ikasi

Hainbat joko erabil daitezke konfiantza, ahalegina eta pertseberantzia bezalako balioak indartzeko, hala nola eraikuntza-, mahai- eta rol-jokoak. Aukeratu itzazue zuen alabari/semeari gehien gustatzen zaizkionak eta zailtasun maila pixkanaka handitzen joan zaitezte.

- Pazientzia eta errespetua garatzeko, bere txanda itxaron behar duen...
- Arazoak konpontzeko trebetasuna eta bere buruarekiko konfiantza garatzeko, hainbat erronkari aurre egin behar dien...
- Pertseberantzia eta frustrazioarekiko tolerantzia garatzeko, helburua lortu ahal izateko hainbat maila gainditu behar dituen...
- Sormena eta autonomia garatzeko, bere erronkak sortu behar dituen...

...jolas eta jarduerak ematea interesgarria litzateke.

GAIA LANTZEKO BESTE LIBURU BATZUK



- Bonbolosaurora (Rachel Bright). Ibaizabal, 2023
- Armiarma oso lanpetuta dago (Eric Carle). Kalandraka, 2023
- 9 kilómetros (Claudio Aguilera). Ekaré, 2022
- La idea más maravillosa (Ashley Spires). Serie Infinita, 2021
- Spioutnik (Jérôme Camil). Tramuntana, 2021
- ¡Ya vamos! (Marta Cunill). Mamut Wistiti, 2018
- El hombre bala (Irene Sacido). Libre Albedrío, 2015
- ¡Ya estoy! (Gemma Lienas). laGalera, 2009



* Liburu guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean eskuragarri daude.